ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2016ko irailaren 30a, ostirala • 110 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko ekainaren 24an 2016ko kirol programetarako diru-laguntzen deialdia onartzeko hartu zuen erabakiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 318004

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index):

Lehenengoa. Onuradunak

Deialdi honen bidez arautzen dira gure udalerrian 2016an norbanakoek edo kirol-jarduerak antolatzen dituzten elkarteek sustatutako kirol-egitasmoak.

Bigarrena. Xedea

Gure udalerrian 2016an kirol-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko ekainaren 24an hartutako erabakiaren bidez onartu ziren. ALHAOn argitaratu dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako zuzkidura 72.960 eurokoa izan da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik eta hilabetez.

Laudio, 2016ko ekainaren 24a

Alkatea
JON IÑAKI URKIXO ORUETA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.09.30 05:30:12 Z